

Euskara eta teknologia berriei buruzko burutazio batzuk

Pablo A. Martín Bosch “Aritz”

Derioko Institutua
aritzmar@euskalnet.net

Abstract

The article starts somehow answering a philosophical question: what kind of relevance had language? Laying out the results, we notice that historically the role of language has been based on some myths; firstly, it was believed that only humans were capable of talking; secondly, speech was linked to a certain thing that existed outside the human body, namely, the soul; and thirdly, it was asserted that this last characteristic placed us above all animals, plants, and things. However, slowly but constantly, those three myths have been overcome, and nowadays we are facing a new horizon.

Along with this fresh perspective, new technologies have been developed, yet their effects are still no clear to us, in the view of the impact that ideological changes have on technology. In this sense, our concern is the effect these new technologies might have on Basque language, and what kind of future lies ahead of us. Thus, we have chosen to open the playfield instead of offering clear-cut solutions.

Laburpena

Artikuluak hasten da galdera filosofiko bati nolabaiteko erantzuna emanez: zein garrantzi mota eduki du lengoaiak? Emaitzak ematerakoan konturatzen gara mito batzuetan oinarriturik egon dela hizkuntzaren papera historian zehar; alde batetik berba egitea gizakiei baino ez zaiela egokitu sinistu egin da; bigarrenez, mintzatzea eta gure gorputzetik at dagoen zerbait susmatu da, arima izenekoa; eta hirugarrenez, azken ezaugarri horrek beste edozein animali, landare edo gauzen gainean kokatzen gintuela esaten zen. Hala ere, astiro baina eten gabe, hiru mito horiek poliki jauzi dira eta gaur eguneko beste horizonte berri baten aurrean aurkitzen dugu gure burua.

Ikuspuntu horren aldaketarekin batera, edo alboan behintzat, teknologia berriak ere asmatuak izan dira, eta ideologiaz aldatzeak teknologietan eragiten badu, azken hauek ere ez dira batere garbiak. Zentzu honetan ikusten eta arduratzen gara teknologia berri hauek zer suposa liezaioketen euskarari, eta zein nolako etorkizuna pentsa litekeen. Hots, irtenbideak eman baino nahiago izan dugu esparruak zabaltzen.

Hitz gakoak: Euskara, teknologia berriak, hizkuntza, lengoiaia, pertsona, automata, animalia, ordenagailua, garuna, neurologia.

1. Sarrera

Pertsona hitzak moztorra adierazten duen bitartean “persona” bera zer den azaltzerakoan hizkuntzara jo behar dugu. Pertsona ez baita agerpen edo mamu bat, hitzaren esanahiak esaten duen moduan, pertsona, norbera dena, geuk esaten dugun moduan, beste gauza bat baita. Pertsona lengoiaia bat menperatzen duen edonor bezala harturik dago, gehi eskubideak eta betebeharrak dituen bezalaxe.

Zentzu horretan, pertsonatzat hartzen dugu, eta horrela hartua izan da historikoki, hizkuntza bat menperatu duen jendea. Hala nola, Greziar eta Erromatarren kulturetan, esaterako, latina edo greziarra maneiatzen zuten herriak kultuak zirela esaten zen, eta besteak, bar bar bar... eta horrela mintzatzen zirenak barbariarrak izendatuak izan dira. Gauza bera gertatzen da Ber ber ber hizkuntzarekin, berebereak bezala harturik.

Honela ikusita, gutarikoak eta erbestekoak hizkuntzagatik elkar bereizten dugu. Guk euskara

erabiltzen dugu, besteek erdara erabiltzen duten heinean. Ikuspuntu honek, zaharra izan arren, ondorio ezberdin askotara eramaten gaitu, esaterako, euskaraz mintzatzen den edonor euskalduna ote da? Nahiz eta euskalki modu ezberdin batez hitz egin? Iparraldean Hegoaldeei manexak edo martixak deitu arren?

Hala ere esan behar da nola hizkuntza Herri baten oinarritzko ezaugarri bat bezala hartua izan den, zalantzarik gabe. Hor daukagu, adibidez, nola J. I. Iztuetak Gipuzkoako dantzak deskribatzerakoan euskalkien arabera egiten duen, eta beste hainbeste adibide. Euskaraz mintzatzen den herria euskalduntzat hartu behar dugu.

Baina euskara, edozein hizkuntza bezalaxe, tresna bat da. Hots, erabiltzen ez den bitartean baliogabea dela ere aitortu behar dugu. Hau da, euskara kalean ez badago ez dago euskararen inguruko ezer ere ez. Ez dago euskal kulturarik euskara barik, beste era batera esanda.

2. Ohiko kulturak eta hizkuntza

Ohiko kulturetan (Afrikan, eta abar) hizkuntzaren garrantzia nabaritzen da. Animaliek edo basapiztiek gizakiei berba egiten irakatsi baitiete. Animaliangandik, jainko edo jainkosengandik ikasi baitute mintzatzen.

Hain papera handia daukan hizkuntzak zein Herrialde batzuetan, omen denez, Mundua bera dena, hitzagarriak sortu zen (judutar eta kristauak, esaterako).

Are gehiago, kristautasunean Kristo, Jesus, Berbagatik gizontzen da.

Hau dela eta gizakia zer den esaterakoan mintzoa aipatu egin behar dugu. Gizakia mintzatzen den norbait baita. Eta zer egin mutuekin? Edo beste hizkuntza bat erabiltzen duenarekin? Zergatik agintzen zen Franco garaian “kristau eran” mintzatzeko? Baliteke hemen erantzun bat aurkitzea.

Kristautasunak, zentzu honetan, latinaren erabilgarritasunaren azpimarratzeagatik kalte egin diola euskarari argi dago, bai Iparraldean baita Hegoaldean ere.

Hala ere, apaizek esanda, euskaraz ere ulertu ahal dira Bibliako liburuak, eta itzuli egin ziren.

3. Pizkunde Garaia eta lengoia

Pizkunde garaian, nolabait, egoera aldatzen da. Alde batetik Erromako hizkuntzaren aldekoak, eta, beste alde batetik, ohiko mintzaeraren ondokoak.

Rene Des Cartes (1642) delako izenekoak azken ikuspuntu honen alde jo zuen. Idazle honek zera dio (dagokigun gaiari buruz): Pertsona norbera da hizkuntzagatik, bestela ez zen bereiztuko ez animaliangatik (loro, esaterako), ezta tresnengatik ere (automata). Ikuspuntu honi jarraituz, DESCARTESek defendatzen duena gizakiak bai tresnengatik bai animaliangandik ezberdintzen garela hizkuntza bat menperatzeagatik. Ikuspuntu hau gaur egunera arte heldu zaigu. Hau da, jarraitzen dugu jarritako heredentziarekin: Gizakia dena da hizkuntzagatik, Pertsona dena animaliangandik bereizten da lengoia dela medio.

Baina Descartesek zalantza bat jartzen du: Descartesek norbera sakabanatzen du zati bitan, gorputza eta arima, edo izpiritua. Baina, beharrezkoak dira biak? Dualismo deiturikoa beharrezkoa ote da? Batzuek baietza eman arren, beste batzuek kontra egingo dute.

Jean Ofrei De La Mettriek (1748), esaterako, materialismoaren alde joko du. Idazle honen ustetan Gizakiek eta animaliek, edo landareek, ez daukate inolako berezitasunik ez bada kalitate mailan. Edozein pertsona animalia bat da, eta edozein animalia landare bat bezalakoa da. Denek, modu batera edo bestera, betebeharrak berdinak ditugu bizirik irauteko eta. Zentzu honetan, eta aurrean esandakoarekin kontrajarriz, landareak, animaliak eta pertsonak ez gara esaten den beste elkarrengandik bereizten. Lengoaia, orduan, ez da inolako gizakien oinarritzko ezaugarria, tresna bat baizik, eta zentzu honetan Descartesek aipatutako automatik eta pertsonak antzekoak gara. Ikuspuntu hau berriro agertuko zaigu XX. mendean, ordenagailuak asmatzen direnean.

Azken puntu honek lengoiaik zuen garrantziari kentzen dio inportantzia, hau da, landareak, animaliak eta pertsonak antzekoak garela defenditzen du. Orain arte erantzun gabeko itauna zera izan da: Bagara animaliak edo landareak bezalakoak? Eta galdera erantzutea ez da batere erraza, ikusiko dugun legez.

4. Automatak ordenagailuetan bihurtuz

XIX. mendean zehar matematiketako lengoia landu da hizkuntza unibertsala bailitzan, Descartesek proposatu zuen beste tesi bat gauzatu. Logikako eta matematiketako berezitasunak, elkarren harremanak eta, azkenean, erregelen batuketak ikertuak izan dira, konputagailuei lehenengo urratsak jarritz.

Logiko – matematikoa den lengoia eskuetan edukiz gero, kontuak ateratzea eta baita dedukzioak asmatzea errazago egiten da.

Hurrengo pausua, jakina, ordenagailuak elkarrekin konektatzea izan da, web sarea asmatuz.

Baina prozesu honek, egokia, eraginkorra eta, gehien bat zientzietarako eta gizarte harremanak errazteko, baliagarria izan arren, bidean ere zerbait galdu du eta edozein hizkuntzari, eta are gehiago gutxituenei (euskara, esaterako) kalte egin die. Egia da interneten bitartez edozein lengoia erabil daitekeela kanpoko nahiz barruko jendearekin berba egiteko; hau dela eta euskara zabaldu da mundu osora, eta ikastea edo irakastea ordenagailua duen edonork egin dezake. Baina, beste alde batetik ezin dugu ahaztu nola hasierako ideietan bazegoen komunikazioa bera erraztea, nondik datorrigun windowsen erabilera, eta hitzak erabili beharrean ikono edo marrazkiak jartzearen beharra. Idatzita – irakurrita den hizkuntzak bere garrantzia galdu egiten du, eta honekin batera erabiltzen dugun hiztegia txirotu egiten da. Garapena horrelakoa izan da, eta azken bolada honetan arinago joan da telefonoetan, ikusiko dugun legez. Hau da bizitza, eta

ezin da aldatu, baina kontuan hartu behar da euskara bera dagoen giroari moldatzeko, bestela zaharkitu gisara geratu eta hilko baita¹.

Beste alde batetik, argi dago nola prozesu honetan ordenagailua eta gizakia konparatuak izan diren. Hortik adimen artifizialaz mintzatzea eta abar. Baina gaia ez da bertan geratzen, gizakientzako oinarrizko galdera bizia sortaraziz: makinak baino ez gara? Haragia nahikoa da gure existentzia konplexua azaltzeko? Eta hori horrela bada, gure izaera fisikaren menpe ulertu behar dugu? Ez dago askatasunik? Ez dago arimarik? Filosofo eta psikologo askok horretaz eztabaidatu dute itaunak oraindik teiltuan egonez, baina, zalantza barik, emandako azken pausu hauek materialismoraino hurbiltzen gaituztela argi dago.

5. Hizkuntza komunikatzeko tresna bat bezala

Ikusi dugu nola azken urte hauetako teknologiek aldatu duten gutaz geneuzkan oinarrizko ikuspuntu edo kontzeptuak. Honekin batera esan beharra dago nola hizkuntza bera, bere izaera, berriztatu den. Edozein hizkuntzak barruko egitura bat dauka, orden batez azaltzen da eta hitzek, aditzek eta abarrek leku bat bete behar dute, haiei dagokiena. Diskurtsoa bera modu batez egiten ikasten dugu eskoletan, An hasita eta Zn amaituz, tarteko urrats edo katemaila guztiak ondo eta sendo finkaturik egonez. Orain, aldiz, ez da hori gertatzen, ordenagailuek uzten digute idazkera, eta honekin batera datorren pentsamendua ere, aldatzen. Hasi ahal zara nondik nahi, gero bukaera, itzuli hasierara eta aldatu, berriro erdigunera, eta horrela. Prozesu honek, hain simplea iruditu arren, aldaketa itzelak ekartzen dizkio, lehenengoz idazteko joerari, baina sakonean pentsamenduaren egiturari. Zertarako ikasi nola pentsatu gero ordenagailuan jolastu ahal badut ordena aldatuz? Are gehiago, idazkera eta pentsamendua aldatzen badira, ez da hizkuntza bera aldatuko?

Ordenagailu – interneti, eta azken urte hauetan argazki makinei ere, sortu zaion konpetentzia telefonoetatik dator. Telefonoak gero eta txikiagoak dira, gero eta kapazitate gehiagorekin eta gero eta funtzio ezberdinagoak ere betetzen dituzte. Hasiera batean telefonoek ez bazuten inolako eraginik hizkuntza baten garapenean, orain aldiz, seguru aski etorriko zaion garrantzitsuena bertatik izango dugu. Gaur egunean, lehen ere aipatu den legez, komunikazioa ahalik eta azkarren lortu nahi da, eta, ordenagailuek aldatu badute esaldien egitura, telefonoek gauza bera egiten dute

1Ik. Pablo A. Martín, Las Nuevas Tecnologías y el Concepto de Revolución Total, la caverna de platon webean. <http://www.lacavernadeplaton.com/>

hiztegiarekin. SMS delako sisteman, mezu laburrak bidaltzen, hitzak txikitu egiten dira eta idazkera ere beste modu batez egiten da. Kasu honetan euskara arloan oztopo birekin topatzen gara, alde batetik euskarak berak bere burua egokitu behar diolako egoera berriari, idazkera berri bat asmatuz (eta hitz konposatuak laburtuz), eta gainera konpetentzia eginez bere inguruan dauden bi hizkuntza nagusiei, gaztelera eta frantzierari hain zuzen, zeintzuk dauzkaten, oro har, hitz laburragoak euskarak baino.

6. Gizakia animalia bat bezala

Descartesek bere automatari buruzko hipotesia plazaratu ostean ikerketa asko egin dira, bai animalien artean hazi diren umeekin², baita animalia³ eta piztiei buruzkoak beste bultzada handi bat emanez aurkako tesiari.

Animaliak gairela inork ez du zalantzan jarri, baina gure handikeriak eraman gaitu beste espezieetatik banatzeraz pentsatzeko gaitasuna daukagulako, eta hori horrela dela erakusten dugu hitz egiten dakigulako ikusi dugun legez. Hau da, beste edozein animalia baino inportanteagoak gara hizkuntzagatik (eta pentsamenduagatik). Topatzen dugun galdera, orduan, zera da: animaliek ez dute pentsatzen? Ez dira haien artean komunikatzen? Oso denbora luze batean zehar erantzunak batera etorri dira, adieraztean animaliek ez dutela pentsatzen tresnak erabiltzeko eta asmatzeko gaitasuna ez dutelako erakusten, eta ez dutela mintzatzen guri zerbait esateko trebetasunik ez daukatelako.

Hala ere gaur egunean gauzak goitik behera aldatu dira. Beste hainbeste ikerketen artean azken bolada honetan aztertu den animalia mota bat txinpantze tximinoa izan da. Bertan bereiztu dira talde ezberdin bi, txinpantze izenekoak eta bonobo bataiatuak. Berezitasun handienetariko bat indarra erabiltzean datza, lehenengok gatazkak indarrez konpontzen dituzten bitartean, bigarrenek sexua erabiltzen baitute⁴. Lan hauetan ere ikusten da nola, alde batetik, zaharrek kumeei irakasten dieten tresna sinpleak sortzen, adibidez, makila txiki bat inurriak ehizatzeke, edo harri bat mailu bezala hartuta intxaurrek txikitzeke, eta abar. Joera honek animalien arteko lengoai bat erabiltzea

2Julien-Offray De La Mettriek berak aipatzen du Polonian gertatutako kasu bat bere El Hombre Máquina liburuan. Interesgarria ere bada El Pequeño Salvaje (François Truffaut 1960) pelikula, benetako beste kasu bat azalduz, eta Nell (Michael Apted, 1994), neska bati buruzkoa dena. 3Aipagarria da Attenborough (1993) non oinarririk dagoen Bideo bilduma bat, BBCk argitaraturik La Mente Animal izenburupean, Grandes Documentales de la 2 (2003). 4Begiratu, adibidez, Grandes Documentales de la 2: La Mente Animal (2004).

suposatzen du. Beste alde batetik tximuak maketa baten aurrean jarri dira ondoko gelaren itxuraz eta ezkutatu da zerbait, tximinoa berehala joaten benetako lekura, abstrakzioa eta pentsatzeko gai direla erakutsiz. Hirugarren kasu batean irakatsi diote tximu bati besoekin hitz eta esaldi sinpleak egiten. Horrelako ikerketak egin eta egiten dira, ez goi mailako animaliekin bakarrik eta ondorioak antzekoak izan dira: animaliek, oro har, pentsatzen dute eta kapaz dira komunikatzeko, gure hizkuntzan ez izan arren.

Aurrean esanda dagoenetik beste emaitza emankor bat atera behar da: animaliek, gu barne, keinuak erabiltzen ditugu bai lengoai bakarra bezala (mutuek, alegia), edo baita ahoz azaltzen dugunari laguntzeko⁵. Keinuak, konturatu barik, denok erabiltzen ditugu, eta ikasiak izan dira, eta kultura bakoitzak baditu bereak, esaterako, "bai" goitik beherako buruko mugimenduaz azaltzen dugu Euskal Herrian, Bulgarian ezkerretik eskuinera egiten den bitartean. Norberak jakin barik lagungarriak diren azalpen horiek ikasi eta moldatzen ditu, bere nahiez edo beste kulturen eraginez. Zentzu honetan interesgarria litzateke, euskararen arloan, ez bakarrik idaztea edo ahoz esaten dena grabatzea, baizik eta gorputzaren joera bidez edukitzea. Horrela konpara daitezke mugimendu zaharrak eta berriak, telebistaren eragina, eta abar.

Gauza bera egiteko dago dantzen inguruan, Curt Sachs-ek (Sachs, C. 1944) erregistro bat egiten saiatu zen, baina horrez gain interesgarria ere litzateke dantzek azaldu nahi dutena nola egiten duten ikertzea.

7. Euskara eta neurologia

Mito nagusi bi horiek, gizakia animalien kateko azken urratsa dela, eta konposaturik dagoela arimaz eta gorputzaz, garuna eta makinak konparatzera garamatzate. Pertsonaren mugimenduak edozein robot bailitza azal daitezke, baina, zer gertatzen da burmuinarekin? Hori ere makina da? II. Mundu Gerraren ostean aurrean zeukaten kontzepzioa hankaz gora jartzen da. Ordenagailuak hasten direnean erabiltzen, eta garunak nola funtzionatzen duen ikertzen denean bien arteko harremanak batzen dira eta adimen artifizialaz mintzatuko da, garun elektronikoaz egiten den bezalaxe. Garuneko neuronak eta loturak kableekin parekatuko dira, eta entzefaloea eta disko gogorarekin gauza bera egingo da. Kasu bietan ere informazioa kanpotik etortzen da eta elaborazio prozesua beharrezkotzat daukagu. Are gehiago, hasiera batean guk lengoia berrizatzeko daukagun gaitasuna ere azken produkziozko ordenagailuek badaukate.

⁵Desmond Morrisen zuzendaritzapean BBCk argitaratu bideo serie bat El Mono Desnudo izenburuarekin. Grandes Documentales de la 2 bilduman, 2004. urtekoa.

Hala ere, oraindik badaukagu ezaugarri bat haiek ez daukatena: bizirik gaude. Ordenagailuei, esaterako, informazio kapazitatea handitzeko kanpotik sartu egin behar zaie tresna bat, guk, aldiz, ezin dugu horrelakorik egin. Nola gehitu, orduan, kapazitate hori? Neuronak elkarrekiko loturak mantentzen dituzte multzoak osatuz, honela, esperientzia bat jazotzen dugunean neurona taldea pizten da, baina esperientzia berria denean neuronatik lotura berri bat eraikitzen da beste neurona ezberdinekin lotuz, horrela handitzen dugu adimeneko kapazitatea. Saguekin eginiko behaketetan ikusten da, argi eta garbi, nola sagu bat hutsik dagoen gela batean sarturik, eta bestea gauzaz beterik dagoen gelan, lehenengoak lotura gutxiago daukala bere garunean, hau da, bigarrena azkarragoa dela. Hemen daukagu hizkuntzak, edozein (euskara barne, jakina), ikastetik datorkigun abantaila bat. Euskara ikasteak neuronen arteko loturak sakontzen ditu, eta erraztasun gehiago edukiko dugu beste edozein hizkuntza edo gauza ikasteko. Kontuan hartu behar da, gainera, nola Frantzierak eta Gaztelarak daukaten egitura gramatikala eta euskarak daukana ezberdinak direla. Honak suposatzen du hitzen lekuaren bereizketa bat, eta jakina espazioaren kontzeptu bereziak erabiltzea. Interesgarria izango litzateke euskaldun, erdaldun eta elebidunen garunak aztertzea garatuago zer dagoen ikusteko.

Noizbehinka entzun behar diegu, gehien bat politikariei, nola hobe den hizkuntza bakar batez mintzatzea (gure kasuan gaztelera edo frantziara, ez dute esaten denok ingelera edo errusieraz hitz egiteko) lengoai nazionala baztertzeko gogoz. Bada ordua erakusteko, kulturaren aberastasunaz gain beste edozein hizkuntza menperatzeak norberaren izaeran ere abantailak baino ez dituela ekartzen.

8. Psikologia eta euskara

Orain arte egin dugun guztia Psikologiaren inguratzea baino ez da izan. Jokaera, jarrera, nola azaldu, adimena, garuna, ikasbidea, lengoia bera psikologiako gai propioak dira aspalditik.

Baina psikologiak, azken urteetan, beste bide ezberdin eta berriak eraikitzen ditu, hauen artean propaganda eta gizarte psikologia agertuz. Bi gai hauek guretzako oso interesgarriak direla azpimarratu nahi dugu, biak batera ukitu arren. Zentzu honetan euskara (edozein hizkuntza) salgai bat bezala hartu behar da. Nola eragin pertsonengan gauza bat erosten bultzatzeko? Hori izan behar dugu buruan. Euskara salbatu nahi baldin bada merkataritzaren arauak onartu behar direla uste dugu.

Lehenengo, oso ezaguna da nola mezu bat mila aldiz errepikatzen dugunean azkenean sinesten dugun, edo behintzat berarekin geratzen garen buruan. Zentzu honetan interesgarria izango litzateke, konturatu barik, edonon euskara ikustera bultzatzea, adibidez, gauzen izenak euskaraz idaztea (gaur egunean arbola batzuen ondoan jartzen dira), dendan eta salgaien izenak ere, norabideetako kartelak, gutunak, inpresoak, eta abar. Euskara kaleetan ikusi behar da. Bigarrenez, polita izango litzateke kaleetan ere musika eta abestiak entzutea, merkatal guneetan egiten den moduan; musika arina, lasaia, eta abar herrietako dendan alboan, trenean, garraioetan eta abar euskara irensteko jakin barik, baina azkenean buruan zerbait geratzen da. Hirugarren arlo bat informazioa lortzekoa da, alegia, liburuak, aldizkariak, irratiak, telebistak, eta abar, beti azpimarratuta euskararen papera eta babesteko beharra, gehien bat Espainiak eta Frantziak beraien hizkuntza ofizialak indartzen dituztenean. Laugarren talde batean lanbideak agertu behar dute, noski, ez bakarrik eskatuz titulu bat lana lortzeko, baizik eta sari bat emanaz erabiltzen duen enpresari ere. Gainera pribilegiatu egin behar da; duela urte batzuk kultur ezberdinei buruzko topaketak aurkeztu ziren Deustuko Unibertsitatean eta bertan galdetu zen hizkuntzaren egoera Catalunyan, Galizian eta Euskadin. Galiziarrek, mutur batean, auzoetan hizkuntza erabiltzen zela adierazi zuen, baina inola ere ez enpresetako buruen artean, elizako ierarkian edo horrelakoetan. Catalunyan, aldiz, atzerritarrek goi mailara igotzeko beharrezkoa zela nabaritzen zuten, eta ez bakarrik lanean jarraitzeko. Euskadin mutur bi hauen tartean kokaturik gaude eta Galizian gertatzen denaren arriskuan ere bagaude.

Askotan beste herrialdeetan egiten dena eredu gisara hartzen dugu, beno, ba Alemanian ikusi dugu nola ez dagoen Estatu osorako telebista ofizialik, Länd bakoitzak berea dauka, hemen aldiz Estatuetako (Espainia eta Frantzia) telebista publikoak eta pribatuak ditugu zeintzuekin hemengoek kompetentzia egin behar duten. Pentsatzekoa da, behintzat.

9. Euskara ala euskarak?

Orain arte beti hitz egin dugu euskara bakar bat bailitzan, hala ere ezin dugu ahaztu euskalki ezberdinak ere baditugula Euskal Herrian. Gaztelarrek edo Frantzierak egin duen moduan, hizkuntza bat indartuz, exijituz eta inposatuz, euskara batuak egin du beste euskalkiekin. Ahaztu zaigu hikako mintzamoldea, deitzen zen bizkaiera (batua) eta besteak alde batean geratu dira, eta sortu dugu euskara batuaz bakarrik hitz egiten duen belaunaldi bat. Zer gara euskaldun berriak? Euskaldunak? Euskara batualdunak? Herrialde batek duen aberastasuna ez da neurtzen bakarrik hizkuntza bakar bat menperatzeagatik, euskalkiak ezagutzeagatik

ere neurtzen da, baina horretarako irakasleak beharrezkoak dira. Nondik atera? Edo euskara (euskara zaharraren mundua) hil da? Aukera dugu, orain, eskoletan erabiltzen diren lengoia indartzeko orduak euskalkiak irakasteko. Egin dezagun!

10. Azken galdera batzuk eta bukaera

Burutazio hauekin ezin da amaitu galdera metafisiko batzuk jarri gabe: pentsamendua existi daiteke irudirik gabe? Eta hizkuntza barik? Hautematen dugun mundua ordenatzen dugu, beti, Niaren inguruan? Gizakiak lengoia sortzen du? Eta alderantziz? Eta amaitzeko, ba al dago metafisika edo kosmos – ikuskera bat lengoaiaren azpian⁶?

Artikulu honetan aspergarriak ez izatea espero dugu; kritika batzuk eta irteera batzuk emateko asmoa eduki dugu. Hala izan bada, ederto.

11. Aipamenak

- Attenborough, D. (1993). *La Vida a Prueba* RBA Ed. Bartzelona
- De La Mettrie, J. O. (1983). *Obra Filosófica*, Ed. Nacional, Madrid.
- Descartes, R. (1985). *Meditaciones Metafísicas*. Orbis Ed., Bartzelona.
- Sachs, C. (1944). *Historia Universal de la Danza* Centurión, Buenos Aires.
- Truffaut, F. (1960). *El Pequeño Salvaje*. Frantzia.

6 Jon Balza, ik. <http://www.dantzak.com>